# KONTUZ! LANDARE EXOTIKO INBADITZAILEAK EDERRAK DIRA, BAINA OSO ARRISKUTSUAK

## ADI

### BACCHARIS HALIMIFOLIA
EZIZENA KARKEXA



JATORRIA: Ipar Amerikako ekialdeko kostaldea. Landare menperatzaile hau beste edozer landare espezie ordezkatu arte hazten da. Landare bakar batek 3-5km-ko inguruan lurra kolonizatzeko prest dauden milioi erdi hazi aska ditzake. Estuarioetan eta padurетan agertu ohi da.

## ADI

### CORTADERIA SELLOANA
EZIZENA PANPABELARRA



JATORRIA: Hego Amerika. Zabalguneak kolonizatzen ditu, aniztasun biologikoaren eta paisaia balioaren kaltetan. Polen asko ekoizten duenez, alergia arazoak sor ditzake. Izurrite izateraino zabaldu da.

## ADI

### ROBINIA PSEUDOACACIA
EZIZENA SASIAKAZIA



JATORRIA: Estatu Batuetako hego ekialdea. Bertako basoetako espezieak ordezkatzen dituzten koloniak sortzen ditu. Lurra eta ekosistema ere aldatu egiten ditu. Bizkor hazten da, indartsu, eta ernaberritzeko gaitasun handia du. Horregatik, azkar zabaltzen da. Alergia arazoak sortzen ditu eta toxikoa da.

## ADI

### FALLOPIA JAPONICA
EZIZENA REINUTRIA



JATORRIA: Japonia
Ibai ertzetan eta gune hezeetan hazten da. Landaredi naturala ordezkatu, eta fauna desagerrarazten du. Azken urteetan asko zabaldu da.

Politak iruditu eta gure lorategietan landatzen ditugu. Ondo itsasten eta erraz ugaltzen direnez, gero eta ingurune gehiago kolonizatzen dituzte. Bertako espezieekin lehiatzen dira, eta ordezkatu edo desagerrarazi egiten dituzte. Izurritea dira eta arrisku larrian jartzen dute naturaren oreka.
Gure esku dago landare horiei zabaltzen ez uztea.

## EZ ITXURAREKIN FIDATU
## EZ LANDATU

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

ingurumena.net
Gure esku dago
está en nuestras manos